

HAMLET BERRIAK

Antzeztoki handia zela mundua Shakespearek zioen aspaldi handian zer ez luke esango gaurko egunean geure Euskalerra ezagututa

Hemen denok antzezteak gara antzezte kaxkarrek gainera izan ala ez izan horra hor gure leloa, Hamlet berriak

Trajedia jokatzen ari garela sinestuta gaude itsu-itsuan geurea ordea komedia hutsa da eta barregarri gelditzen gara

Antzoki honetan nahasmena da dena etsai duguna laguntzat hartzen dugu laguna berriz, arerio zitaltzat. Pieza txepel hau noiz bukatuko ote?

DAMU EZ

Beti harritu izan naute zer damutu ez dutenek dena ondo egin dute inongo hutsik gabe

Harro ibiltzen dira bide artezaren barna dudak eta zalantzak inoiz ez beraientzat

Eta nik ordea guztiaz damutu behar aspaldiko ekintzez eta egin berriaz seguru inoiz ez edozein bide okerra gabibidean zehar banoa hondamendirantz

Telebista piztu eta hor izango dituzu irribarre betea ezeren kezkarik ez.



EKOLOGIA

Munduko basoak zuhaitzik gabe arin gelditzen ari omen dira eta itsasoa arrain ezean zabortegi itzela bilakatu da

Ez esan badakit
neuk ere badakit
badakit oso ongi
hori bai badakit

Zeruko zuloa handitzen ari

eta euriak lurra ferekatu ordez sustraietaraino erre, kiskali egiten omen du oso aspalditik


Zurekin nagoela ahaztu oro besterik ez dut nik desio nire ondoan zu edukiz gero munduari perfektu deritzot

Behiala garbia izan errekek ur zikina dakar aspaldi handian eta ibai ertzetan bildu aparra pozoin hutsa dela nork ukatu ahal.

IZORRA HADI

Fandangoaren buelta etorri omen zain
hik piztutako suan kiskali egin haiz
orain ikasi behar samina zer den
nik ikasitakoa aspaldi-aspaldi

Izorra hadi orain dun hire txanda
Mendeku txepela badela jakin
oso ongi bazekinat neronek noski
txepela baino gozoa ezin izan erruki
hik eragindako minak ez din bueltarik.



ASPALDIKO GUTUNAK

Kontu zaharra omen da eta dena den
gogotik ezin kendu
denbora lagundu ordez badirudi
oro okertzen duena
Aspaldiko gutunak (erre ditzagun)
argazkiak ere
oroitgarri guztiak (erre ditzagun)
deus ez geratu arte
Maitasunaren gozoa izan zena
bihurtu zen garratza
damuaren pisua itzela da
eramanezinena.

ONGI HELDU EUSKALERRIAN

Ongi heldu Euskalerrian
hemen pozik egonen zara
zernahi gauza duzu aukeran
zuk eskatu eta berehala
zelai berde, itsaso urdina
etxe zuri polit askoak
herri txiki eta dotoreak
non afaldu baita non edan

Zein zoragarria
gure Euskalerrria
zein zoragarria

Ez sinetsi egunkariak
lau katu besterik ez dira
gehienok ez gara halakoak
baizik eta bakezaleak
gainera ez al da ederra
sute horien ikuskizuna
gar horien kolore biziak?
Ez kezkatu programan da-eta.
Hona itzuliko zara
ahal duzun guztietan
eta agian egun batean
betirako zahartzaroan.

BERRIA

Joan badoa egun hil berria
zeru-ortzean urratu txiki bat
besterik ez izan arteraino
eta erabat desagertzeraino
joan badoa agure zahar hori
makur, oker gizona bailitzan
ze denbora zama astuna baita
beti gainean eramateko

Bidaia ordea oraintxe hasi da
halako batean agure zena
zuzpuru eta gazte bilakatu da
sasoikoa dator egunsentia

Ez da inoiz gurpila gelditzen
eta nonbait katea ez da eteten
geu sortu eta enbor berberetik
sortuko omen beste denak ere
azkena ez da lehena besterik
baita aurkia ifrentzua ere
jira eta bira eternalean
joan eta etorri egiten da oro

Oraindik ordea, horrela ote da?
Ba al dator inor gure ostean?
Galdera gehiegi ez ote dira?
Kateaz gainezka ibiltzen gara.

GEOGRAFIA

Basamortu erdian badago oasis bat
haraino heltzen dena bertan gelditzen da.
Itsasoz bestaldeko oihan oparoetan
txoriak ari dira kantu amaigabeen

Hemen ez

Polinesia aldean neskakila guztiak
lorenz dute eginda beren irribarrea
iparralde ilungo lurralde izoztuetan
afoak eta izterrak beti daude sutan.

Hemen ez.


ALDE HEMENDIK



Eskolara joan eta lekurik ez han niretzat
gauza bera gertatu zen elizara azaldu eta berehala

Alde hemendik entzun behar
edonora noala
herririk herri erromes
dudan guztia alboan

Polizia ikusi eta berehala naiz korrika bestalderantz
uniforme gabe ere badira izan asko eta asko bazterretan

Noiz arte ote noraezean bideetan zakur deslai begi triste
orri baino lehen hosto, neure arbola non egongo, non egongo?





ZUK IZAN EZIK

Nola da posible zuk ez ikustea beste edozeinek erraz ikusten duena? Begibistan dago ageri-agerian begiak zabaldu alboan nauzu-eta

Zuk izan ezik
denek dakite jakin

Zure lagunek dakite auzoek ere bai baita hegan dabiltzan euli eta txoriek ere nik sentitzen dudana lar nabarmena da gogor saiatu arren ezin ezkutatu ahal

Denek dakite ene pena
denek dakite horren berri
denek dakite zer sentitzen den
denek dakite zuk izan ezik.

ZALANTZEN MENPE


Oharkabean, espero gabe horrela azaldu zinen harrezkeroztik sosegurik ez urduri nauzu beti

Zalantzen menpe
askatu ezinik
zalantzen menpe
seko beldurturik
zalantzen menpe

utziko ote nauzu?
Zalantzen menpe noiz arte?

Duda-mudetan egoten naiz ni zu gabe nola bizi?
Pentsatze hutsak izutzen nau eta loa eragozten dit.

(Gezurrak esan, ez dit axola,
gezurrik esan
zuk nahi adina.)



NORAEZEAN

Honaino gara etorri
neke handia hartuta
nahi eta ezin inon gelditu
aurrera segi behar

Nora noa, nora zoaz,
nora goaz hemendik?

Bidegurutzetan gaude
nora jo ezin jakin
bide guztiak malkartsu
ordekarik ez hemen.

MATIAS

Hamalau urte zituen
lanean hasi zela
lanean bost sosen truke
hartan jarraitu zuen
gerrara deitu arte
eta han zauritu zuten
hanka bat moztu zioten

Hanka bat galtzeaz gain
gerra ere galdu zuen
bost urtez preso izan zuten
kartzelatik irtenda
ostera hasi behar
lanik ez komunistentzat
nahiz eta bera ez izan

Herren ibiltzen zen baina
arteza zen bere bidea
ebaki zioten hanka
inolaz ere burua

Izena Matias zuen
kojua esaten zioten
hil arte bizi izan zen.

ABERDEEN

Iluntzen hasi orduko
mundua gelditu egin da
zeru sabaiko argiak
masusta kolorea dauka

Eta inor ez da ageri (inortxo ere ez)
kaleak oro hustu dira (hustu egin dira)
noizbehinka baino ez da entzuten
(oso gutxitan)
baten baten pauso-hotsa

Etzera bildu dira
hemengo biztanle onak
euripean zakurrak
zabor poteetan miaka

Burdinazko zubitik (han urrunean)
tren bat pasa da ziztuan (lipar batean)
auskalo nora doan (nora joanen da?)
hain abiada bizian

Ostatuan bada norbait
nora joaterik ez daukana
oroimina kantu batean
saiatzen da isurtzen.



(Guido Crepax-en)

VALENTINA

Benetakoa ez zarela
denek esaten didate
baina nik ongi dakit
bazarena
ez naute engainatuko
zer dakite zutaz horiek
horien zorakeriek
bost axola

Zu Valentina gozoa
zu bihotzeko kutuna

Zu ezagutu aurretik
amodioaren gozoa
zein ezlia izan leiken
ez nekien
paperezkoa izanda ere
zure gorputz bikain hori
horixe desio dut
nik bakarrik

Urteak pasatu arren
zu ez zara aldatzen
beti bezain polit zaude
beti bezain eder.

789

6487982

AMETS EDERRAK

Baietz esan zenuen pozik eta
baletz esan zuen berak ere
heriotzak biak banatu arte
elkarrekin egongo zineten
gazteegiak zineten ba
ezer jakiteko
bizitza ipuin bat zela
zenuten sinestu

Amets ederrak, non ote orain?
Amets ederrak, besterik ez

Elkarrekin bizitzen hasita
ez zela inolaz ere horrela
konturatu zineten behingoan
etsipen eta damuz gainezka
zure ametsetako printzea
apoa bihurtu
garai bateko musuak
irain eta oihu

Amets ederrak beti amets
Amets ederrak azkar joan
Amets ederrak noiz arte
Amets ederrak beti amets

31178
1254663



Xabier Montoia

baPENTZAKO KANTUA

Zaratarik gabe etorri
eta modu berean aldegin
hobe entzuten da edozein doinu
zalaparta orotik urruti

Belarririk finena alferrik
sosegi egonez gero adi
hunkitu gintuen musika
bihotzetik isil isuri

Dena hasi eta amaitu
egiten omen da noiz edo noiz
jotako hondar kantua ordea
hemen entzuten da oraindik.

Orain zure burua ikusita
ikaratzen zara, a ze piura!
eta ohera itzuli berehala
egin nahiko zenuke orduan
begiak betiko itxi
eta luze amestu
amets zoragarriren bat
ezti eta amultsu.